

BALORE PROPOSAMENA

Gure enpresa irakur liburu zein testu liburuen PDF-ak edukiko dituen plataforma bat izango da. Etxetik edo kaletik irakurri dezakete bezeroek, horretaz gain, liburu fisikoak erostea baino merkeagoa izango da. Badakigu plataforma antzekoak ere daudela baina liburuak bakarrik eskaintzen dituzte eta liburu bakoitza ordaindu behar da. Geurean besteekiko desberdina den ezaugarria hau da:

Plataforman hilabetean diru kopuru bat ordaindu beharko dute eta nahi dituzten liburu, hiztegi guztiak beraien eskura eduki ahal izango dituzte. Horretaz gain, unibertsitateko apunteak, eskoletakoak, ariketak eta liburuak egongo dira. Gainera, publizitatearen bitartez bezeroak lortzea errazagoa egingo zaigu, hainbat erakunde publikorekin harremanak gauzatzeko, esaterako, eskola-harremanak lortu ditzakegu.

